

Proposamenak eskaintzeko eta jasotzeko

Euskarazko kultur jardueri buruzko eskuorri bat aurkeztu dute Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Ttakun Kultur Elkarteak. Herritarren ekarpenak jaso nahi dituztela esan dute / 3

27 film labur eta hiru dokumental proiektatuko dituzte XIV. Itsaspeko Zinema Zikloan / 2

Buruntzaldea IKTKo Nahia Zudairek jubentil mailako Espainiako AXA txapelketa irabazi du / 10

Inauterietako jaialdia kultur etxean egitea proposatu du udalak; konpartsen araberakoa izango da egitaraua / 7

Lasarte-Oriako lau atleta absolutu mailako podiumera igo dira Pista Estaliko Gipuzkoako Txapelketan / 11



Koplak kantatu, eta makila astindu

Santa Ageda bezpera ospatuko dute herriko ikasleek eta hainbat eragilek / 6

TXINTXARRI

MERKEALDIA
+ 2. BETAURREKOAK OPARI



R.P.S. 91/20

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen

www.multipopticas.com   



Jesus Mari Egizabal, David Sanchez eta Agustin Valdivia, ezker-eskuin, egitasmoaren aurkezpen ekitaldian. TXEMA VALLES

Edizio berri bat, itsas hondoa bistaratzeko

Otsailaren 7an hasiko da Itsaspeko Zinema Zikloaren XIV. edizioa. Urtero bezala, Real Sociedad taldeko itsaspeko sailak, Lasarte-Oriako Udalak eta Danok Kide elkarteak antolatuko dute, elkarlanean, eta itsasoaren azpian dagoena ezagutaraztea da helburu nagusia

Txintxarri

Lasarte-Oriako Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko XIV. edizioa aurkeztuko dute astearte goizean Real Sociedad taldeko itsaspeko saileko ordezkari David Sanchezek, Agustin Valdivia alkateak, eta Danok Kide guraso elkarteak Jesus Mari Egizabalek. Otsailaren 7an, 14an eta 21ean izango dira emanaldiak, 19:00etan Manuel Lekuonan eta *Itsasoarekiko maitasunak guztiarekin ahal duenean* da aurtengorako aukeratu duten leloa. Sarrera doakoa izango dela jakinarazi dute antolatzaileek; edukiera bete arte sartu ahal izango dira herritarrak emanaldietara. "Lehen mailako estreinaldiak ikusi ahal izango ditugu pantailan, Donostiako Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloa bezalako lehiaketan txalotuak".

27 film labur eta hiru dokumental proiektatuko dituzte. Alde batetik, iraganera bidaia bat egingo dute bertaratzen direnek, itsas hondoen gaur egungo egoera eta duela 50

urtekoaren arteko aldeaz jabetuko dira. Bestalde, Kantauri itsasoaren alderik basatiena eta Kanariar Uharteetako Mantelinen babeslekua ere ezagutuko dituzte. Gainera, Mediterraneoeko hondorik ikusgarrienaz gozatuko dute, eta Indonesiako uretan ere murgilduko dira.

Haurrak ere partaide


Otsailaren 7an, 10:00etan, Txikizikloan parte hartuko dute ikastetxeetako gaztetxoek. 10 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako jarduera da, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoentzat. Ikasleekin lanketa egitea "ezinbestekoa" dela uste du Sanchezek, txikitatik kontzientzia har dezaten. "Erroka zaila utziko diegu eta sentsibilizatu egin behar ditugu, aldaketaren eragile indartsuak bihurtzeko; gure azken itxaropena dira. Itsaspeko mundu liluragarri eta zoragarri hau ezagutu ahal izango dute horretarako", gaineratu du.

Aipatu jarduera horretan parte hartu aurretik, ordea, lanketa

egin dute ikastetxeetan. Horretarako material didaktikoa eman diete zinema zikloko arduradunek: "Proposamen oso zehatz bat eman zaie irakasleei, garatu beharreko jarduerak eta orientabide metodologikoak jasotzen dituen, ikus-entzunezko materialarekin lagunduta. Proposamen hori ikasgelan garatu ahal izango dute".

Argazki erakusketa

Aurtengo ziklora aurkeztutako argazki onenen erakusketa bisitatzeko aukera ere izango da. Kultur etxeko kafetegian jarriko dute, otsailaren 7tik 25era eta honako ordutegian: 17:00etatik 21:00etara. 24 argazki osatuko dute bilduma, eta munduko itsaspeko hondoetan zehar bidaiatuko dute bisitariak: "Espezia bitxi eta deigarrienak erakutsiko dizkigute, gutxitan ikusten diren egoeretan. Naturaren edertasuna eta gizakiak harekiko duen jarreraren krudeltasuna, erakusketa berean".



Urtarrilean 2.120 positibo zenbatu dira herrian; otsailaren 2ra arte, aldiz, 72. TXINTXARRI

Inzidentzia tasak beheranzko joerari eutsi dio egunotan ere

Koronabirusaren datuen azken txostenaren arabera, 3.276,45eko intzidentzia tasa du Lasarte-Oriak

Txintxarri

Beheranzko joerari eusten dio koronabirusaren seigarren olatuak. Intzidentzia tasari erreparatuta ikus daiteke jaitziera hori. 100.000 biztanleko 3.276,45ekoa. Aurtengo urtarrila izan da orain arte kutsatu kopuru handiena batu duen hilabetea; 2.120. Otsaila hasi berri dugu, ordea, eta asteartetik asteazkenera 72 kasu detektatu dituzte, Lasarte-Orian.

Eskualdeko gainerako bost udalerritan egoera antzekoa da; intzidentzia tasek beherantz egin dute.

Bestalde, COVID ziurtagiriaren erabilera indargabetu du EAEko Auzitegi Nagusiak. Dokumentu hori eskatzen jarraitzeko epea luzatzearen eta eremu gehiagotan eskatzea galdegin zion Eusko Jaurlaritzak, baina epaileek ez dute onartu eskaera. Auzitegiak adierazi du "nabarmen" jaisten ari direla intzidentzia metatua eta ospitaleetako okupazioa, eta hori kontuan izanda, "nekez" justifika daitekeela "oinarrizko eskubideak murrizten dituen neurri bat espazio berrietara zabaltzea".

Iñaki Mugicak jarraituko du PSE-EEko idazkari nagusi izaten

Erabaki hori hartu du alderdiak batzarrean. Tokiko zuzendaritzako gainerako karguak ere berriro dituzte

Txintxarri

Batzarra egin du Lasarte-Oriako PSE-EE taldeak, eta aho batez erabaki du Iñaki Mugica berrautatzea, taldeko idazkari nagusi izateko. Tokiko zuzendaritzako gainerako karguak berriro egin ditu: Lourdes Palacios izango da antolakuntza idazkaria, Iñigo Zabaleta idazkari instituzionala, Nuria Fernandez administrazio idazkaria eta Jose Mari Urdanpilleta antolakuntzako laguntzailea.

Iazko urrian ekin zion talde politiko horrek kongresu prozesuari, eta batzar hori egin ostean bukatu du, zuzendaritzako kargu ia guztiak berriro. Kudeaketaz arduratuko den taldearen erroren hauek izango direla jakinarazi dute sozialistek: "Pandemiaren ondoren elkarte suspertzea, udal gobernuari laguntzea eta etorkizuneko hauteskunde kanpainak prestatzea, batez ere, 2023ko udal hauteskundeak".

Euskarazko kultur jarduerak hauspotzeko

Eskuorri bat prestatu dute Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Ttakun Kultur Elkartek, datozen hilabeteetarako jarduera sortaren berri eman eta herritarren ekarpenak jasotzeko. Herriko zenbait gunetan eskuratu ahalko dute gida hori lasarteoriarrek

Txintxarri

Datozen hilabeteetako kultur eskaintza lantzen jarraitzen dute Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Ttakun Kultur Elkartek. Euskara batzordeburu Jon Antxordoki eta Ttakuneko Kultura sailekoa arduradun Arkaitz Illarramendi Ttakunenea elkartean bildu dira berriki eta azken asteetan prestatu duten eskuorria aurkeztu dute. "Helduentzako kultur eskaintzaren barruan, euskararen erabilera bermatuko duten jarduerak antolatuko ditugu", nabarmendu du Antxordokik. Helburua hau da: "Euskaraz izango diren ekimen zehatzak eta kultur jarduerak sustatzea".

Ikasturteko programa eta ekimen iraunkorrak ez ezik, horiekin uztartzekoak izango diren hitzaldiak eta bestelako jarduerak dinamizatuko dituztela jakinarazi dute bi erakundeen ordezkariak. Arestian esan bezala, datozen hilabeteetarako eskaintza prestatzen ari dira udala eta Ttakun, eta horretarako, aukera emango diete lasarteoriarrei ekarpenak egiteko, aipatu eskuorriaren bidez. Hori dela eta, jakinarazi dute herritarrek zenbait gunetan eskuratu ahalko dituztela: Ttakunen, Ttakunenean, udaleko



Ezker-eskuin, Arkaitz Illarramendi eta Jon Antxordoki, eskuorriaz hitz egiten. TXINTXARRI

Euskara zerbitzuan, Manuel Lekuona Kultur Etxean, Udal Euskaltegian eta Munterri-AEK euskaltegian. "Hala ere, izen emateak eta ikastaro berriak antolatzeke proposamenak Geltoki kaleko bulegoan jasoko ditugu", zehaztu du Illarramendik.

Talde iraunkorrak

Aipatu ikastaroek, gutxi gorabehera, hilabeteko maiztasuna izaten dute, eta ikasturtean zehar egin ohi dira,

irailtik uztaileira. Hauek izan ziren iazko batzuk: makrame egiten ikastekoa edota bizikletak konpontzekoa. Edonola ere, herritarrek aukera gehiago dituzte kulturaz eta euskaraz gozatzeko, iraunkorrak diren programa batzuetan: une honetan Titare jostun taldea, Xumela korua eta Plaza Dantza daude martxan, baina antolatzailen nahia da sorta zabalagoa izatea, eta horregatik, lasarteoriarrek deitu dituzte ekarpenak egitera, eskuorriaren bitartez.

Otsailaren 12ko bertso saio literariorako sarrerak, salgai

Txartelek hamar euro balio dute eta Ilargi, Jalgi eta Tiburtzio Artizar tabernetan eros daitezke

Txintxarri

Lasarte-Oriako Irakurle Txokoak gogorarazi du salgai daudela otsailaren 12ko bertso saio literariorako txartelak. Hamar euro balio dute eta Ilargi, Jalgi eta Tiburtzio Artizar tabernetan eros daitezke. Koronabirusak eragindako egoera tarteko, aurten ez dute otordurik emango, baina hala ere ekitaldi "erakargarria" prestatu dutela azpimarratu dute: Ane Labaka, Maialen Lujanbio eta Uxue Alberdi bertsolariak elkartuko dituzte Miren Agur

Meabe idazlearekin. Xirimiri elkartean ariko dira lauak, 18:00etatik aurrera.

Bestalde, hilerro-hilerro ari dira elkartzen irakurle txokoko kideak, idazleren baten lan bat irakurri eta hari buruz hitz egiteko. Otsailaren 15ean Hedoi Etxarte gonbidatuko dute, *Sortaldekoak* poesia liburuari buruz solastera. 18:30ean elkartuko dira, Manuel Lekuona Kultur Etxean. Bertaratu nahi duenak aski du hara joatearekin, ez du aurrez abisatu behar.



FAKTORIA

Pikabea eta Loiarte, garaile

Dozena bat bikotek musean jokatu zuten urtarrilaren 28an, Xirimiri elkartean. Faktoria egitasmoan parte hartzen duten ikasle gazteek antolatuta dute jarduera, ikasturte amaieran egin nahi duten bidaiarako dirua biltzeko. Larrun Pikabea eta Beñat Loiarte lasarteoriarrek irabazi dute. Antolatzailerek eskerrak eman dizkiete Etxezarreta harategia, Tiburtzio Artizar taberna eta Xirimiriri, jarduera antolatzeko emandako laguntzagatik.



Ttakun
30 urte

Zozketa!

Ttakun Kultur Elkarteko bazkide zara?

TTAKUNEKO PRODUKTUAK zozkatuko ditugu izena ematen duten bazkideen artean.

Eman izena otsailaren 28a baino lehen.

harpidetza@ttakun.eus helbidean edo 646 82 44 66 (whatsapp)



Arropa eta
komplementu denda

@n.a.h.i.o



Juan XXII plaza, 3 behea
LASARTE-ORIA

Inaugurazioa
Otsailak 5 17:00-20:00
(Musika, luntxa, zozketak...)

Antzerkia eta zinema, agendako osagai nagusi

XIV. Itsaspeko Zinema Zikloa izango da jarduera erakargarrienetako bat, baina ez bakarria: haurrentzako zein helduentzako antzerki emanaldiak ez dira faltako eta Udal Musika Eskolako kideek kontzertu bufoa emango dute inauterien atarian

Txintxarri

Urteko bigarrena mozarroei lotutako hilabetea da ezinbestean. Ospakizunetarako testuinguru egokiena ez den honetan, Inauterietan zer gertatuko den erabakitzeke dago; eta besteen azalean jartzea gustuko dutenen kontsolamendurik izango bada ere, datozen asteetan ez dira faltako kulturari lotutako jarduerak. Horien berri izateko nahikoa da Lasarte-Oriako Udalak atondutako otsaileko kultur agendari erreparatzea.

Huts egingo ez duena, urteko garai honetako beste hitzordu finko bat da: Itsaspeko Zinema Zikloa. Real Sociedad taldeko Urpekaritza Sailak, Danok Kide elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatzen duten jardueran beste behin geldialdia egingo du herrian. XIV. zikloa hilaren 7tik 25era bitartean aurrera eramango dute. Ekimenak itsaso azpiko mundua ezagutzeko aukera emango die



Hika Teatroak 'Tarara' antzezlanak ekarriko du kultur etxera. HIKA TEATROA

lasarteoriatarrei zenbait dokumental eta film laburren bidez, hari lotutako arazoaren gaineko gogoeta ere piztuz. Emanaldiak hilaren 7an, 14an eta 21ean egingo dituzte, astelehenarekin, 19:00etan hasita.

Sarrerak doakoak dira. Halaber, Manuel Lekuona Kultur Etxeko 1. solairuan argazki erakusketa bat jarriko dute Cimasub 2021era aurkeztutako irudi onenekin osatua. Hilaren 25a arte ikusteko aukera izango dute herritarrek.

Ikus-entzunezkoekin jarraituz, hilabetero bezala, Okendo Zinema Taldeko kideek bi proiektzio egingo dituzte. Otsailerako *Last Night in Soho* eta *No somos nada* filmak aukeratu dituzte. Otsailaren 11n eta 25ean egingo dituzte emanaldiak, 20:30ean hasita. Sarrerak sei euro balio dute. Horrez gain, hilabeteko kartelera honako pelikulek osatuko dute: *Ilargirantz*, *Tundama y el templo del sol*, *Canta 2*, *Spider-Man No Way Home*, *El contador de cartas*, *El caso Villa Caprice* eta *Todo ha ido bien*. Zerrenda horretako aurreneko lauak haurrentzako saioak izango dira, eta sarrerak lau eurotan salgai daude kultur etxeko leihatilan Gainerakoak, berriz, helduei begirakoak dira, eta sartzeko sei euro ordaindu beharko dituzte.

Tragedia eta komedia

Opera zaleek hitzordu erakargarria dute hilabete honetan: Giuseppe Verdi-ren *Otello* opera digitala ikusteko aukera izango baitute. William Shakespeare-k idatzitako tragedia ospetsuan oinarritutako ikuskizuna 2013. urtean Palazzo Ducale di Venezia-n grabatu zuten eta sekulako arrakasta izan zuen: "Zazpi minutuz egin zuten txalo ikus-entzuleek", azaldu du Jesus Mari Egizabal Danok Kideko ordezkariak. Proiektzioa hilaren 9an egingo dute kultur etxean, 19:00etan.

Sarrerak 7,5 eta bederatzi euro artean balio dute.

Pantailaz gain, kultur etxeko eszenarioan ere izango da zer ikusi. Familiei begira, Teatro Paraiso konpainiak *Leioak* antzezlanak ekarriko du hilaren 12, 17:00etan. Jakin-mina galdu duen emakume baten abentura da, haurtzarora bueltatuko da, jolastu eta mundua ezagutzeko amesten zuen garaira. Jolasaren bidez, ikusleek bizitzeko lehen urteko irudien eraikuntza eta deseraikuntza josten dituen bidaia egingo dute. Astebete geroago, helduen txanda izango da. Hika Teatroak *Tarara* antzeztuko du, 20:00etan hasita. Bi emanaldiak kultur etxeko auditorioan egingo dituzte; sarrerak lau eta sei euro balio dute, hurrenez hurren.

Oholtza horretara igoko dira Udal Musika Eskolako kideak ere, otsailaren 24an, inauterien atarian, kontzertu bufoa egiteko. Mozorro koloretsuak soinean, azken hilabeteetan ikasi dituzten piezak joko dituzte guraso eta lagunaren aurrean. Emanaldia 19:00etan hasiko da, eta doakoa izango da sarrera.

OPERA DIGITALEKO EMANALDIETAN, GIUSEPPE VERDI-REN 'OTELLO' IKUSTEKO AUKERA IZANGO DA

Martxoaren 8a iragartzeko kartelak aurkez daitezke

Emakumeen Nazioarteko Eguneko 2023ko egitarauko irudia aukeratzeko prozesua ireki du udalak berriki

Txintxarri


Datorren urteko Martxoaren 8ko egitaraua iragartzeko afixa aukeratzeko asmoz, Lasarte-Oriako Udalak lanak aurkezteko epea ireki du eta otsailaren 28an itxiko du, hilabeteko azken egunean. 12 eta 17 urte arteko herritarrek parte har dezakete, eta goiburua hau eraman beharko dute kartelek: *Martxoak 8 de marzo, Emakumeen Nazioarteko Eguna, Día Internacional de las Mujeres*.

Partaide bakoitzak nahi adina lan egin ahalko ditu lehiaketarako, baldin eta eskakizun guztiak

betetzen badituzte. Afixak lantzeko teknika "erabat librea" dela nabarmendu du udalak, eta formatu fisikoan zein digitalean aurkez daitezkeela. "Izenburu bat jarri beharko diote bakoitzari".

Emakumeen Zentroan ikusgai

Hilabete amaiera bitarte jasotako kartel guztiak Emakumeen Zentroan jarriko ditu ikusgai udalak, martxoaren 1etik 7ra. Lasarteoriatarrek hara joan beharko dute, eta bozka eman. "Herritarren iritzia kontuan izango ditugu bigarren eta



Kartelak aurkezteko azken eguna otsailaren 28a izango da. TXINTXARRI

hirugarren sariak erabakitzerakoan". Lehen saria nork irabaziko duen, berriz, epaimahai batek deliberatuko du: Lasarte-Oriako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako zuzendariak eta gaian adituak

diren teknikariek osatuko dute batzorde hori. Haien erabakia "apelaezina" izango dela zehaztu du udalak.

Irabazleak 120 euro jasoko ditu; bigarrenak, 90; eta hirugarrenak, 60.

Ikastaroak eta zuzeneko hitzaldiak KZGunean, otsailean

Lasarte-Oriako KZ Guneak herritarren prestakuntzaren aldeko apustua egiten jarraitzen du. Horrela, hainbat formakuntza saioen eskaintza egin du. Datorren hilabetean (otsailean) hasi eta aurrez aurrekoak, bideokonferentzia bidezkoak eta urrunekoak izango dira. Horrez gain, hilabetean zehar zuzeneko hitzaldi batzuk emango dituzte haien YouTubeko kanalean.

Izena eman nahi dutenek 943-02 36 60 telefono zenbakira deitu edo www.kzgunea.eus webgunera sartu beharko dute. Aurrez aurreko hitzordu bat erreserbatzea ere posible da, aurrez aipatutako zenbaki horretara hots eginda.

Elkartasuna eta aldarrikapena, plazan

Urtarrilaren hondarrean egin dute urteko lehen Azken Ostirala. Ekintzaren amaieran, presoek osasun eta komunikazio eskubideen urraketa gaitzetsi, eta torturaren gaiari heldu diote. Halaber, Ernaiko kide Aitor Zelaia eta Galder Barbado gazteei babes adierazi diete

Txintxarri

Urteko lehen hilabetea amaitzeko zela, Azken Ostirala egin zuten pasa den astean. Hainbat herritar batu ziren Elizatze eta Okendo lotu zituen ibilbidea egiteko; eta, ohi bezala, helmugan, Sarek eta Etxerategi adostutako idatzia irakurri zuten Lasarte-Oriako Sareko kide Ixiar Arteagak.

Urtarrilean gertatutakoei errepaso egin zieten, lehenik. Martuteneko espetxean preso dagoen Francisco Jose Ramadak bihotzekoa izan zuen hilaren 21ean. Berari eta senideei besarkada bidali eta elkartasuna adierazteaz gain, bera eta gaixotasun larriak eta sendaezinak dituzten hemeretzi euskal preso politikoak —Ibon Fernandez Iradi

herritarra barne— aske uzteko eskatu zuten. "Presoen osasunerako eskubidea guretzako gai nagusia da, ezinbestekoa. Izan ere, kondena luzeek eragindako narridura fisikoak eta espetxeko bizitzak kalte nabaria eragin diote kolektibo honen osasunari, gainera, batez besteko adina nabarmen igo da", aipatu zuten eragileko kideak.

Horri gehitu behar zaio azken urteotan koronabirusak espetxeko osasun baldintzak are gehiago okertu dituela. Testuinguru horretan, beste behin presoek osasun eta komunikazio eskubideen urraketekin bukatzea galdegin zuten. Horretarako, eskatu zuten antigenu miaketa masiboak eta ohikoak egitea,

koarentenatarako espazio nahikoa egokitzea eta halakoetan, gutxienez, telefonoz komunikatzen jarraitu ahal izatea; eta bisean bisak berreskuratzea.

Ikuspegi berriak

Zaugarrienetarik harago, presoak aske uzteko eskaria berretsi zuten. "Euskal preso askok zigorraren zati handi bat bete dute dagoeneko, eta justizia arrunta aplikatuta, aske irten beharko lukete", gehitu zuten.

Urtarrileko irakurketaren ondoren, aurrera begira jarri ziren. Ekintzan moldaketa egin nahi dute, hilabete bakoitzean ikuspegi batetik landuz. Hala nola, tortura, transexualitatea, disertsioa, internazionalismoa...



Okendo plaza bi ekintzen lekuko: elkartasun argazkia eta Azken Ostirala. TXINTXARRI

Joan den ostiralean, torturaren aldetik begiratu zioten, idatzi bat irakurrita. Izan ere, hilaren 13a Torturaren Aurkako Eguna baita, 1981ean Joxe Arregi hamar egunez torturapean izan ondoren hil zuten eguna.

Ondoren, Ernairen izenean hitz egin zuen Izar Agirretzek. Aitor Zelaia eta Galder Barbado gazte arabarren auziaren berri eman zien plazan bildutakoei. 2016an izandako sabotaje baten harira iaz epaitu zituzten, armak egiteko materiala zutela egotzita. "Argi dago garai bateko fase politiko batean iltzatuta nahi

gaitzuztela eta gazteriarren aurka errepresioa erabiltzen jarraitzen dutela poliziak eta Estatuak, orokorrean. Askatasunaren alde lanean dabilen herri baten aurkako eraso bat dela". Bi hilabeteren buruan aurreikusten dute haien aurkako sententzia plazaratzea eta une horretan atxilotuak izango dira, lau urteko espetxeko zigorra betetzeko.

Ankerkeria Stop plataformak deituta, Azken Ostiralaren aurretik, Zelaia eta Barbadori elkartasuna adierazi zieten Okendo plazan talde argazki bat eginda.

GUTUNA: Zorionak Jabi!

Urteak espetxean desberdin pasatzen direla esaten dute. Beraz, barruan urteurrenak desberdin bizi direla pentsa dezakegu. Badago kartzelaratu zintuzten egunaren urteurrena, kondentatik urte bat gehiago bete duzula gogorarazten dizun eguna —alegia, kalera atertzeko, ustez, urte bat gutxiago geratzen zaizula ziurtatzen duena—, bisita berezi hori izan duzun egunaren oroitzapena... Baina, orohar, espetxean egunero da marmotaren eguna, Jabi Gallaga gure herriko preso eta adiskideak esaten duen bezala: "Hemen barruan oroitzapenak ahazten dituzu, egunero berdina baita".

Baina egun guztiak berdinak izanagatik, ez dira gauza bera. Asteartean Jabiren urtebetetzea da, eta Lasarte-Oriatik keinu egin nahi diogu. Indarrez eta maitasunez betetako zorion agurra hemendik Darocako kartzelara heldu dadin. Posible da asteartean,

liburutegiko lanetan aritzea, edo tailerrari neurria hartu nahian. Akaso patioan kideek zorionduko dute, hala gustatzen bazaio behintzat.

Ziur dakiguna da, ordea, ezin izango duela gertukoekin ospatu, ezingo duela llogirra pote bat hartzera jaitxi edo 90 urtetik gorako ama bisitatu. Ezingo du bere familiarekin kandelarik piztu, ezta otordu oparorik egin ere. Ezingo diogu nahi genizkikeen

beste besarkada eta goraintzi eman. Egia hori, espetxe barruan eduki ahal den hurbiltasun apurra ere ezingo diote eman asteartean bere gertukoek: bisitak asteburuera mugatuak dira, eta joan den asteburuan edo datorrenean jasoko ditu zorion agurrak kristal atzean. Telefonoz ere ezingo ditu nahi beste lagun agurtu: deiak telefono zenbaki gutxitara eta astean aldi gutxitara mugatuta ditu. Eta noski, oso garestiak dira.

Hau da, espetxean urtemuga ospatzea, egunerokoan bizi duten

askatasunaren urraketen isla da. Eta eskubide urraketen isla ere bai. Urtebete da Jabi Kordobatik Darocara lekualdatu zutela. Aldaketa nabarmena izan da bisitarien zatia: kilometroen erdia dago batetik bestera, eta 24 orduko bidaia amaiezinen ordez, egun erdiko distantzia egin behar dute laguna/senidea bisitatzeko. Aldaketa barruan ere igarri da: Kordobako inkomunikaziotik atera dute, eta, orain, aukera du, besteak beste, kideekin egoteko eta lanean aritzeko. Baina, halere, 341 kilometro joan eta 341

kilometro itzuliko bidaia egin behar dute lagunak; hau da, guztira zazpi orduko bidaia preso ordubetz ikusteko; eta oraindik ez dute Euskal Herriratu, nahiz eta jakin adineko ama duela eta Lasarten harreman estuak dituela. COVID garaiak ere ez du batera lagundu, eta bertan behera utzitako bisean bisekoak ezin izan dituzte erreperatu. Urteak joan, urteak etorri, gainera, Espainiak segitzen du Jabik Frantziaren betetako zazpi urteko kondena kontuan hartu gabe. Noiz arte?

Urte berriarekin haiztzen diren desio onak bezala, guk ere Jabiren urtebetetze honi eskatzen diogu azkena izan dadila. Azkena baldintza horietan ospatzeko eta azkena etetik hain urrun egoteko. Gainontzeko euskal presoentzako ere gauza bera eskatzen dugu.

Besarkada eta muxu handi bat Jabi, Lasarteko zure lagunen barteaz. Eutsi eta aurrera!

Eskutitza bidaltzeko: JABI GALLAGA RUIZ C. Penitenciario de Daroca . Ctra. Nombrevilla, s/n 50360 Dacora, Zaragoza.



Azken Ostiralaren ostean, dozenaka herritar elkartu dira Jabi zoriontzeko. LASARTE-ORIAKO PRESOEN ALDEKO BATZORDEA

Santa Agedaren omenez irtengo dira kantatzera

Aurtengo saioak bertan behera uztea erabaki dute herriko hainbat eragilek. Halere, izango da usadioari utsiko dionik ere. Erketz EDT dantza taldeko kideak santa eskean irtengo dira, eta herriko ikastetxeetako ikasleek ere makilak astinduko dituzte

Txintxarri

Santa Agedaren omenezko kantu eta koplak saioek girotuko dute herria ostiralean, hilaren 4an. Covid-19ak eragindako egoera medio, zenbait taldek aurtengo santa eskeak bertan behera uztea erabaki dute, baina izan dira usadioari eustea erabaki dutenak.

Sasoeta HHko ikasleak koplak kantatuko dituzte. 12:00etan egingo dute saioa, eta LH 6. mailako ikasleekin batera arikotuko direla iragarri du ikastetxeeko zuzendariak. LHko ikasleak, aldiz, arratsaldean egingo dute

oles. 15:15ean elkartuko dira ikastetxeetako patioan.

Garaikoetxea-Landaberriko txikienek ere patioan astinduko dituzte makilak, arratsaldeko 16:00etan. Hori, noski, euririk egin ezean. Eguraldi txarra egingo balu, bi txandatan banatuko dira; 15:15ean lehena eta 16:00etan bigarrena. Landaberri LHko gazteek ere eskainiko dute emanaldia. Bi txandatan egingo dute horiek ere; 16:00etan eta 16:25ean.

Elkarte eta eragileak arratsaldean zehar ariko dira kantuan. Zabaleta Auzolan elkarte auzoan barrena ibiliko

da oles egiten; 18:00etan hasiko dira, Antonio Blas plazan. Erketz EDT dantza taldeko kideak Oriamendi plazatik abiatuko dira ordu erdi geroago, 18:30ean. Herrian zehar ariko dira lehenengo, eta Urnieta Bideko baserrietara joango dira gero.

Earra bertso eskolak eta Xumela koruak aurtengo emanaldiak bertan behera uztearen alde egin dute. Bertsolari taldeak ez du taldea osatzeko adina kiderik biltzea lortu, eta koruko abeslariak, berriz, entseguak bertan behera utziak dituztenez, aurtengoan kale egitea erabaki dute.



Kopla ezagunak abestuko dituzte, Santa Agedaren omenez. TXINTXARRI



Ikastetxeetako haurrek ere ospatuko dute Santa Ageda bezpera. TXINTXARRI



Oriamendi plazatik abiatuko dira Erketzeko kideak eta kaskoan ibili ostean, Urnieta bideko baserrietara joango dira. TXINTXARRI



Zabaletako bizilagunak ere auzoan barrena ibiliko dira kantari. TXINTXARRI

'Otello' opera digitala ikustera joateko aukera dute herritarrek

Otsailaren 9an proiektatuko dute, 19:00etan. Sarrerak erostea ezinbestekoa da; salgai daude kultur etxean

Txintxarri

Opera zaleek hitzordu erakargarria dute. Lasarte-Oriako Udalak eta Danok Kide elkarteak antolatuta, Giuseppe Verdi-ren *Otello* opera digitala ikusteko aukera izango dute. Otsailaren 9an izango da, 19:00etan, eta bertaratzeko sarrerak

erostea ezinbestekoa da. Kultur etxeke leihatilan eros daitezke dagoeneko; 7,5 eta bederatziko euro artean balio dute.

2013. urtean grabatu zuten Palazzo Ducale di Venezia-n, eta sekulako arrakasta lortu zuen, zazpi minutuko txaloaldia jaso zuen.

William Shakespeare-k idatzitako lanean oinarrituta osatu dute opera saioa, eta honako protagonista hauek agertuko dira pantaila handian: Gregory Kunde tenorea (Otellori jarriko dio ahotsa); Carmela Remigio sopranoa (Desdemona interpretatuko du) eta Lucio Gallo baritonoa (Yago izango da). Horiekin batera ariko dira Teatro La Fenice-ko orkestra eta abesbatza, horiek guztiak Myung-Whun Chung-en zuzendaritzapean.

Tragedia handi baten lekuko izango dira ikus-entzuleak.



'Otello' opera digitalaren argazki bat. METOPERA.ORG

Aurtengo inauteriak ohi bezala ez ospatzea erabaki dute

Otsailaren 26an kultur etxean jaialdi bat egitea da alternatiba: konpartsek bat egin ala ez erabaki behar dute

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak, inauterietan parte hartu ohi duten konpartsek eta zenbait eragilek bilera egin dute berriki, eta osasun egoerari erreparatu ostean, ospakizuna Okendo plazan ez egitea adostu dute, jende pilaketak saiheste aldera. Larunbat arratsaldeko desfile koloretsua ere bertan behera utzi dute. Zenbait aukera aztertu eta gero, otsailaren 26an kultur etxean jaialdi bat egitea proposatu du udalak, eta konpartsek erabaki beharko dute parte hartu ala ez. "Pandemiak eta gaur egungo osasun egoerak herriz ere mahai gainean jarri dute inauteriak ospatzeari ala ez ospatzeari buruzko zalantza", argudiatu du udalak.

Konpartsek pentsatzen ari dira ea proposamen alternatibo horri baiezkota eman ala ez. Segun eta zenbat diren, egitaraua era batekoa edo bestekoa izango dela zehaztu du udalak.

Indioak eta bakeroak

Ikusteke dago oraindik nola ospatuko ditugun aurtengo inauteriak, baina kultur etxeko ikuskizunak aurrera egitekotan, konpartsek badakite zein den aurtengo gaia: indioak eta bakeroak. Konpartsekin bilerak egin ditu udalak, eta herritarren proposamenak ere jaso zituen. Hona hemen iradokizunetako batzuk: artea, musika, bideojokoak, zerua eta infernua, koronabirusa, herria zoologiko bat bilakatzea, 80. hamarkada edota Gerra Hotza bezalako garai historikoak.

Pandemiak eraginda, 2021ean etena egin behar izan zuen Lasarte-Oriak, eta herritarrek ez zuten gairik izan moztortzeko. Edonola ere, neurrietara egokitu eta dotore atera ziren kalera asko, eta ikastetxeek ere jaialdiak egin zituzten. 2011tik 2020ra, hauek izan ziren onartutako proposamenak: sanferminak, olinpiar jokoak, munduko kulturak, musika, ipuinak, itsasoa, munduko kultur ospakizunak eta errituak,

lanbideak, fikziozko pertsonaiak eta denboraren makina.

Dirulaguntzak eskatzeko epea

Lasarte-Oriako Udalak aditzera eman duenez, aurtengo inauterietan jarduerak egin nahi dituzten norbanakoek zein eragileek laguntza ekonomikoak eska ditzakete otsailaren 14ra arte, astelehenarekin. Udalak 12.598 euro bideratuko ditu programa horretara. Eskatzaileek baldintza hauek bete behar dituzte: dirulaguntzak galdegiten dituztenen erregistro orokorrean alta emanda egotea eta "behar bezala" betetzea eskaera orria. "Zehatz-mehatz azaldu behar dute jarduera nolakoa den, eta zenbateko aurrekontua izango duen".

Balorazio irizpideak hauek izango direla jakinarazi du udalak: programaren aurrekontuak 40 puntu balioko ditu; parte hartzaileen kopuruaren arabera, gehienez hogeit hamar puntu jaso ditzakete proposamenek; jardueraren finantziatze tasagatik, asko jota, hamabost; egitasmoak egin duen ibilbideagatik eta herrian duen errotze mailagatik, hamar; antzeko proposamenekiko koordinazio mailarengatik, beste hamar; eta eragilearen edo konpartsekin fidagarritasunagatik, bost.

Inauterietako gaiak

- **2011:** sanferminak.
- **2012:** olinpiar jokoak.
- **2013:** munduko kulturak.
- **2014:** musika.
- **2015:** ipuinak.
- **2016:** itsasoa.
- **2017:** munduko kultur ospakizunak eta errituak.
- **2018:** lanbideak.
- **2019:** fikziozko pertsonaiak.
- **2020:** denboraren makina.
- **2022:** indioak eta bakeroak.



Udalak, konpartsek eta eragileek bilera bat egin dute berriki kultur etxean. TXEMA VALLES



"LEINN gradua lan mundura salto egiteko prestaketa ezin hobea da"

Nahia Egaña Gonzalez (Lasarte-Oria, 20 urte) Lidergo Ekin-tzailea eta Berrikuntza LEINN gradua ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean, Bidasoako campusean, Irunen.



Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak, baduzu hobby edo zaletasunik?

Betidanik Lasarte-Oriatik ari naiz, Landaberrin eta gero Oriarten. Ondoren, Mondragon Unibertsitatean hasi nintzen Irunen, LEINN egiten. Musika, dantza, futbola eta bidaiatzea gustatzen zait.

Zergatik aukeratu zenuen LEINN gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

LEINN gradua aukeratu nuen beste graduarekin konparatuta erabat desberdina delako: modu askoz praktikoagoan ikasten duzu eta bidaiarekin batera, lan mundura salto egiteko prestaketa ezin hobea da.

Nola baloratuko zenuke LEINNen bizitako esperientzia?

LEINNen bizitzen diren esperientziak ez dira beste karrera edo graduarekin bizi-tzen. Gure azken bidaiak, Costa Ricara, ahaztezinak izan dira.

Nola definituko zenuke Enpresagintza Fakultatean jasotzen duzun ikasketen metodologia? Zer azpimarratuko zenuke?

Metodologia desberdina da, zure kabuz eta talde lanean ikasten duzu, eta zure proiektuekin lotura duten gaiak landuz. Nire ustez garrantzitsua da talde lana eta autolidergoa da. Metodologia desberdina da, zure kabuz eta talde lanean ikasten duzu, eta zure proiektuekin lotura duten gaiak landuz. Nire ustez garrantzitsua da talde lana eta autolidergoa da.

Lehen egunetik enpresa bat sortzen duzue unibertsitatean eta proiektuak garatzen dituzue. Nola egiten da hori? Hasieran ideiak izan gabe, desordenaturik. Baina, pixkanaka-pixkanaka eta taldeki-deen eta aholkularien laguntzarekin, azkenean normaltasunez eramaten da.

Zer proiektu mota garatu dituzue LEINN graduan zehar?

Proiektu asko eta askotarikoak egin ditugu: kimikako tailerrak umeentzat, taberna bat ireki, marketin agentzia bat ireki, coworking-entzako aplikazioak garatu... baina gehienak zerbitzuak izan dira.

Atzerriko esperientziarik izan duzu edo izango dituzu? Non? Nolakoak izan dira?

Orain arte bi bidaiak egin ditugu. Lehenengo urtean Berlinera joan ginen, baina bigarren astean koronabirusagatik bueltatu behar izan genuen, eta bigarren urtean Costa Ricara joan ginen, hilabete baterako. Aurten, martxoan, Koreara goaz, hiru hilabeterako.

Zer egiten duzu orain eta etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?



Orain Coworking-entzako aplikazio bat ari naiz garatzen beste taldekide batekin eta horrez gain, umeentzako kimikako tailerrak egiten ditugu.

Sudokua

Nola esaten diozu ondoko munstro handi honi, HERENSUGE ala DRAGOI? Egia esanda, biak dira onak, baina bigarrenak, sei hizki dituenaz, sudoku honetarako aitzakia eman digu. Beraz, bete itzazu hutsuneak DRAGOI hitza osatzen duten hizkiez (D, R, A, G, O eta I). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.


			O		
	O		R	G	
			G		O
	A			D	
D		O			G
	R		D		

Margotu










Zortziko txikia

Aurki itzazu hiru neska-mutilen eta haien islaren artean dauden aldeak. Zortzi dira guztira.



DOMINOAN

Txanogorritxoren dominoak sei elementu hauek ditu: Amonaren etxola, ehiztariaren eskopeta, saskia, otsoa, basoa eta Txanogorritxo. Aipatutako elementuok marraztuz, bete itzazu hutsuneak domino zatiak zentzua izan dezan.



eskatu eskaini EUSKARAZ

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetzak sustatu zuen *Betikoa. Gertukoa*, merkataritzan eta ostalaritzan euskara bultzatzeko xedez. Lasarte-Oriako Udalak bat egin zuen egitasmoarekin, eta jakinarazi du herriko 81 establezimendu aritu direla produktuak euskaraz eskaintzeko ariketa egiten eta bezeroei euskaraz eskatzeko aukera ematen. 2021eko kanpaina bukatu bada ere, gogoratu hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa urte osokoa dela!

Bat egin duten komertzioen zerrenda

Mila esker parte hartzeagatik!

- ASKI aholkularitza eta aseguruak
- FERNANDEZ EHUNAK
- ORBELA belar denda
- ALAZNE boutique
- ILARGI taberna
- GURE ETXEA taberna
- BARBÉ estankoa
- FERNANDO GIL farmazia
- LASARTE 3 estankoa
- IZA-GUERRI loteri administrazioa
- ORMAZABAL opari denda
- ITURBE oinetakoak
- SUKOA burdindegia
- ZUBI altzariak
- ARREGUI elektrizitatea
- URRUZOLA mertzeria
- INQUIETUD jantzi denda
- OLMÍ mertzeria
- JALAI taberna
- LASARTE albaitaritza
- ABREU bazarra
- JALGI kafe-antzokia
- GOXOGI okindegia
- INSAUSTI taberna
- SALAZAR PROFESIONAL
- BERASATEGI kafe denda
- MAYA lentzeria

- MAITE ERKIZIA ile-apaindegia
- ARKUPE taberna
- Seguros GENERALY
- ANA gizonzkoen ile-apaindegia
- OIHANA estetika
- KÖÖL STUDIO
- AMARAYA diet
- IMAGINE jantzi denda
- Podologia AMAIA OLONDRIS
- NOAOA bidaiak
- BOROBIL arkitektura
- DECO 75 textil hogar
- IRIGOYEN optika
- QUANTUM ESCAPE ROOM
- PLAGAMANÍA
- Frutas RUIZ
- BALERDI harategia
- GARBIÑE ile-apaindegia
- LEIZE moda
- OLA enmarcación
- CARRETERO liburu denda
- BAGRI liburu denda
- BIDEO LAGUNAK
- BUENETXEA taberna
- OGI BERRI okindegia
- PLASTIMIL pinturak
- MAITE ESTETIKA aretoa

- GOIZ ARGÍ taberna
- ALDATZ-EKUA taberna
- MAIALEN DE MIGUEL farmazia
- LARRAÑAGA harategia
- OKELA harategia
- BIZKER inpresio digitala
- ADATS ile-apaindegia
- EGUZKI taberna
- ACHA ORBEA farmazia
- ARITZA mertzeria
- GURUTZE IRAZUSTA diafreo gunea
- LASARTE taberna
- ISU frutas
- OLGA atelier
- Fruteria CECILIA
- GANDARIAS URIBE botika
- LIZARDI tintadegia
- MARISA ile-apaindegia
- MIKEL Txirrindak
- ETXEZARRETA harategia
- ARRUPE elektrizitatea
- PUNTO DE ENCUENTRO taberna
- SUGATE sukalde eta bainugelak
- URBISTONDO farmazia
- TIBURTZIO ARTIZAR taberna
- TXOKO garagardotegia
- PIKABEA artezkaritza

Zudaire, jubenil mailako Espainiako txapeldun

Igeriketa Egokituko AXA Espainiako Txapelketan parte hartu du Buruntzaldea IKTko Nahia Zudaire igerilariak. Sailkapen orokorrean ere podiumera igo da, hirugarren postura. Taldeko bederatzi alebinek Teknikazio Saria lehiatu dute Azpeitian

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko igerilariak bi hitzordu izan zituzten hilaren 29an eta 30ean. Nahia Zudaire Igeriketa Egokituko Adin Tartetako AXA Espainiako Txapelketan izan zen lehian eta taldeko txikiak, berriz, Alebin Teknikazio Sarian. Bietan emaitza onak lortu zituzten.

Zudairek AXA txapelketan parte hartzen zuen azken urtea zuen eta ederki esan zion agur; jubenil mailako Espainiako txapelketa eskuratu zuen. Sailkapen orokorrean, berriz, hirugarren izan, eta iazko podiuma errepikatu zen. Zudairekin batera Anastasiya Dmytriv (urrea) eta Enrique Alhambra (zilarra) izan ziren lehen postuetan.

Zudairek lau probatan parte hartu zuen Valdemoron (Madril) antolatutako txapelketan. Guztietan izan zen S8 mailako lehen postuan eta honakoak izan ziren egindako markak: 400 m.



Nahia Zudaire, jubenil mailako podiumean. ESPAINIAKO PARALIMPIAR KOMITEA

estilo libreko proban, 5.04,55; 100 m. estilo libreko proban, 1.10,36; 100 m. tximeleta proban, 1.22,29 eta 200 m. lau estilo proban, 2.55,67. Azken hori, gainera, 25 metroko igerilekuko marka pertsonal berria du

Zudairek eta Buruntzaldea IKTko marka berria ere bada.

Egindako lanari esker, puntuazio altua lortu zuen igerilari gazteak eta txapelketa amaieran, jubenil mailako txapela jantzi zuen, baita

sailkapen orokorreko brontzea leporatu ere.

Markak ontzen

Igeriketa taldeko txikiak Alebin Teknikazio Sarian parte hartu zuten, hilaren 30ean. Azpeitian antolatu zen txapelketara igeriketa taldeko hamahiru gaztetxo sailkatuta bazeuden ere, bederatzik lehiatu ahal izan zuten gaixotasunak eta bestelako hitzorduek zirela medio.

Taldeko igerilari guztiak goizeko eta arratsaldeko saioan jardun ziren eta banakako zein erreleko probetan parte hartu zuten. Deskalifikatuak izan ziren pare bat igerilari izan ezik, Buruntzaldea IKTko gaztetxoek euren markak ontzea lortu zuten banakako probatan. Lortutako postuak eta markak honakoak izan ziren:

- Ibon Elola: bigarren postua 100 m. lau estilo proban, 1.22,96; hamargarren postua 200 m. estilo libreko proban, 2.43,89.
- Amaur Iparragirre: hirugarren postua 400 m. estilo libreko proban, 6.26,43; zazpigarren postua 200 m. bular proban, 4.01,71.
- Nora Atxaga: hirugarren postua, 200 m. bizkar proban 3.27,20; hamargarren postua 100 m. estilo libreko proban, 1.29,40.
- Nora Miguelez: hirugarren postua 100 m. tximeletan, 1.43,11.

- Mario Amantegi: hirugarren postua 100 m. bizkar proban, 1.20,12.
- Iñaki Garcia: bi laugarren postu 200 m. lau estilo proban, 2.52,23 eta 100 m. estilo libreko proban, 1.08,76.
- Oihan Matute: bi seigarren postu 200 m. estilo libreko proban, 2.39,04 eta 100 m. bizkar proban, 1.25,98.
- Saray Lobato: bosgarren postua 200 m. lau estilo proban, 3.46,34; zortzigarren postua 100 m. estilo libreko proban, 1.27,76.
- Kimetz de la Cruz: hamaikagarren postua, 200 m. bizkar proban, 3.15,33; zortzigarren postua 100 m. bizkar proban, 1.32,56.

Erreleko probei dagokionez, neskak 4x100 m. estilo libre proban hirugarren izan ziren (6.01,76) eta mutilak, berriz, bosgarren (4.51,04). Lau estiloetako 4x100 m. erreleboan, aldiz, neskak laugarren izan ziren (6.59,10) eta mutilak, bosgarren (5.41,01).

Orain, aste batzuk izango dituzte igeriketa taldeko txikiak hurrengo proba prestatzeko. Otsailaren 12an Hernaniko igerilekuko uretara egingo dute jauzi Buruntzaldea IKTko alebinek. Eusko Jaurlaritzak Eskola Kiroleko lehiaketak eten izanagatik atzeratuta geratu zen hitzordua izango dute, Alebin Ligako 4. jardunaldia.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONAL MAILA
Ostadar SKT - Urola KE Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunean.
GORENGOEN MAILA
Billabona KE - Ostadar SKT Igandea. 16:30. Arratzain, Villabonan.
ERREGIONALEN 1. MAILA, IGOERA
Ostadar SKT - Astigarragako Mundarro FKE Igandea. 11:30. Michelin kirol gunean.
OHOREZKO JUBENIL MAILA
Ostadar SKT - Billabona KE Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.
JUBENILEN 1. MAILA, KOPA
Ostadar SKT A - Billabona KE Igandea. 09:45. Michelin kirol gunean.
Orioko FT - Ostadar SKT B Larunbata. 18:00. Mendibetz, Orion.
OHOREZKO KADETE MAILA
Hernani CD - Ostadar SKT Larunbata. 12:00. Zubipe, Hernanin.
KADETEEN 1. MAILA, IGOERA
Zestoa KB - Texas Lasartearra CF Larunbata. 12:00. Iraeta, Zestoa.

KADETEEN 1. MAILA, KOPA
Aizkorri Goierri FT A - Ostadar SKT A Larunbata. 11:00. Alustiza, Seguran.
Ostadar SKT B - Arrupe Chaminade CD B Larunbata. 11:25. Michelin kirol gunean.
OHOREZKO INFANTIL MAILA
Ostadar SKT - Lazkao KE Larunbata. 13:15. Michelin kirol gunean.
INFANTIL 1. MAILA
Ostadar SKT B - Usurbil Udarregi FT A Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.
Usurbil Udarregi FT B - Texas Lasartearra CF Larunbata. 09:00. Harane, Usurbilen.
Urnietia KE - Ostadar SKT A Larunbata. 10:45. Urnietan.
ARETO FUTBOLA
1. MAILA
Eguzki Arkupe Rehabilitaciones - Madamar Tabakalera Zarautz Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.
2. MAILA
Ausa Zaldibi - Eguzki ISU Leihoak Ostirala. 22:00. Resti frontoia, Zaldibin.
GAZTEEN MAILA
Lauburu KE Ibarra A - Eguzki AF Larunbata. 13:45. Belabieta, Ibarra.

INFANTIL MAILA
Eguzki AF - Lauburu KE Ibarra neskak Larunbata. 12:30. Belabieta, Ibarra.
SASKIBALOA
SENIOR 1. MAILA
Ostadar SKT - Goierri AYMA Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kirol.
SENIOR 2. MAILA
Ostadar SKT - Oiartzungo Saskilagunak SKT Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
KADETE PARTAIDETZA
Sebal ISB - Ostadar SKT Larunbata. 10:45. Azpeitiako kiroldegian.
INFANTIL HAUNDI PARTAIDETZA
Ostadar SKT - Goierri Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.
INFANTIL TXIKI PARTAIDETZA
Ostadar SKT - Bera Bera Zurrilla Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
BOLEBOLA
EUSKAL LIGA
Ostadar SKT - Cocinas Dueto Jatorkide Igandea. 11:30. Maialen Chourraut kirol.

JUBENIL MAILA
Ostadar SKT - Tolobolei Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
KADETE MAILA
Talaia Institua A - Ostadar SKT Larunbata. 10:00. Talaia BHI, Hondarribin.
PILOTA
JUBENILAK 2. MAILA - UDABERRI
Intza - Aretxabaleta 1 Igandea. 10:30 (2. partida). Michelin kirol guneko pilotalekua.
JUBENILAK - TRINKETE
Behar Zana - Intza Larunbata. 10:30 (3. partida). Ametsa, Iruran.
KADETEAK 2. MAILA - UDABERRI
Intza - Tolosa 3 Igandea. 10:30 (1. partida). Michelin kirol guneko pilotalekua.
KADETEAK - TRINKETEA
Intza - Hernani Larunbata. 10:30 (2. partida). Ametsa, Iruran.
ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA
Eibar RT - Gesalaga Okelan Zarautz RT Larunbata. 12:00. Unbe, Eibarren.

GIMNASTIKA
AMATEUR TXAPELKETA
LOKEko gimnastek Amateur txapelketako lehen fasea lehiatuko dute. Igandea. Belabieta kirol., Ibarra.
IGERIKETA
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Buruntzaldea IKTko absolutu, junior eta infantil igerilariak Gipuzkoako Neguko Txapelketa lehiatuko dute. Larunbata eta igandea. Allurralde kiroldegia, Andoainan.
ATLETISMOA
EUSKADIKO TXAPELKETA
Ostadar Atletismoa saileko kideek eta hainbat herritarrek maila absolutuko Euskadiko Txapelketa lehiatuko dute. Larunbata eta igandea. Antonio Elortza Belodromoa, Donostian.
LASTERKETAK
ULIAKO GIMNASTIKA
Hainbat herritarrek 91. Uliako 10KM Gimnastikako 10 kilometro eta 5 kilometroko proban parte hartuko dute. Igandea. 10:30. Gros auzoa, Donostian.

Lasarte-Oriako atletak, Gipuzkoako onenen artean

Ostadar Atletismoa saileko kideek eta hainbat herritarrek pista estaliko Gipuzkoako Txapelketa lehiatu dute. Naroa Furundarena (urrea), Enara Gonzalez (zilarra), Yeray Veroniz (zilarra) eta Nahia Surutusa (brontzea) podiumera igo dira

Txintxarri

Hilaren 29an eta 30ean, absolutu mailako Gipuzkoako Txapelketa lehiatu zen Donostiako Antonio elortza belodromoan. Lasarte-Oriak hainbat ordezkari izan ditu eta Ostadar SKTko kideak eta Yeray Veroniz herritarra podiumera igo ziren.

Jauzi eta jaurtiketa probetan lortu zituzten hiru dominak herriko kirol elkartearen kideek. Jauzi hirukoitzeko lehen postua eskuratu zuen Naroa Furundarenak; Enara Gonzalezek zilarrezko domina jantzi zuen luzera jauzi proban eta Nahia Surutusak maila honetako lehen domina lortu zuen pisu-jaurtiketa proban, brontzezkoa.

Nahiz eta lehen saiakeran balio gabeko jauzia egin, Furundarena nagusi izan zen jauzi hirukoitzeko proban. Baleko hiru saiakera egin zituen, eta, azkenean, 12,38 metroko marka egin zuen.

Oscar Goikoetxea taldeko entrenatzaileak azaldu duenez, "marka horri esker, Ourensen (Galizia) antolatuko den Espainiako Txapelketarako sailka daiteke".



Furundarena, jauzi hirukoitzeko podiumean. OSTADAR ATLETISMOA

Horrez gain, 60 metroko lasterketan ere parte hartu zuen herritarra. Sailkapeneko proba gainditu eta finalerako sailkatu zen Furundarena. Horretan zazpigarren postua eskuratu zuen.

Gonzalezek, berriz, txapelketa orekatua egin zuen. Lehen jauzitik aurrean izan zen eta

Atletico San Sebastian taldeko Ainhoa Intxaurregak bakarrik gainditu ahal izan zuen. Gonzalez 5,39 metroko jauziari esker sailkatu zen bigarren postuan.

Goikoetxearen hitzetan, marka hobetzen saiatuko da gaztea, 23 urtez azpiko Espainiako txapelketan lehiatzeko.

Pisu jaurtiketa proban izan zen ezustekoa. Nahia Surutusa juniorrak lehen jaurtiketetan 7,66 metro egin, eta hirugarren postua eskuratu zuen. Maila absolutuan lortzen duen lehen domina da.

Podiumean izan zen ere Real Sociedad taldeko Yeray Veroniz herritarra. 60 metroetako lasterketan hirugarren marka onena egin zuen, proba zazpi segundotan amaituta.

Beste herritar batzuk ere izan ziren lehiatzaileak. Aloña Mendi taldeko Jon Presak, esate baterako, 1.500 eta 3.000 metroko probak egin zituen, eta sailkapeneko lehen zazpien artean sartu zen. Bestalde, Iraia Alkorta eta Alex Alkain 60 metro lasterketan lehiatu ziren, lehenengoz, Ostadarren izenean.

Amateur mailako lehiaketa, gimnasten lehen hitzordua

LOKE Gimnastika saileko kideek otsailaren 6an hasiko dute txapelketa denboraldia, Ibarra

Txintxarri

Lasarte-Oria Kirol Elkarte (LOKE) gimnastek atzerako kontaketa hasi dute. Otsailaren 6an, igandearrekin, Amateur mailako txapelketaren lehen fasea jokatu da Ibarra Belabietako kiroldegian, eta guztia prest izateko lanean ari dira.

Lehen saio horretan bakarkako, bikotekako zein taldeko probak jokatu dituzte LOKEko ordezkariak, hainbat mailatan, eta uztaiarekin zein pilotarekin (edo biekinekin) egin beharko dute lan (ikus ondoko koadroa).

COVID-19ak lehiaketa baldintzatuko duela argi dute. "Gimnasta batek orain positibo emanez gero ezingo luke lehen fasean parte hartu eta ezingo litzuke puntuak lortu Gipuzkoako txapelketara sailkatzeko", azaldu du LOKEko gimnastika saileko arduradun Maite Ruedak.

Horregatik, LOKEko arduradunek ez dute helburu finkorik aurtengo denboraldian. "Gimnastek fase guztiak jokatzen badituzte eta euren hoberena ematen badute, pozik egongo gara", adierazi du Ruedak.

Berrien zain

Horrez gain, denboraldiko gainerako lehiaketen berri gauza gutxi dakitela aurreratu du

Senior A maila

- Garazi Gomez. Uztaita.

Senior B maila

- Paula Martinez. Uztaita.

Jubenil A maila

- Mirian Prieto. Pilota.

Jubenil B maila

- Ambar Rodriguez. Pilota.

Kadete B maila

- Aitana Molano. Uztaita.

Jubenil B bikotea

- Nerea Alonso. Pilota.
- Leire Jimenez. Pilota.

Kadete B bikotea

- Iraia Benito. Uztaita.

Kadete B taldea

- 5 gimnasta. Uztaita eta pilota.

LOKEko prestatzaileak: "Urtarrilaren 28an jakin genuen amateur lehiaketa egingo zela; orain, eskolarteko B mailako lehiaren inguruko berrien zain gaude. Gipuzkoako Federazioaren egutegian hitzordua otsailaren 20an dago finkatuta, baina oraindik ez dakigu ezer".

Eguzki Arkupe taldeak, izerdiz lortutako garaipena

Partida 1-3 galtzen joan arren, Tolosako Herrikide taldearen aurkako partida irauli du 1. Mailako taldeak

Txintxarri

Partida gogorra jokatu zuen Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldeak hilaren 29an, Maialen Chourraut kiroldegian. Herrikide izan zuen aurrez aurre. Neurketa aurka izan arren, Josu Lopezek eta Mikel Escribanok zuzentzen duten taldeak neurketa irauli eta garaipena erdietsi zuen.

Norgehiagoka zaila izango zenaren jakitun atera zen Eguzki kantxara. "Herrikidek jokalaria

azkarrak ditu eta fisikoki ongi prestatuak", azaldu du Josu Lopezek.

Partida ongi hasi zuen herriko taldeak. Aukera asko sortu zituen, baina aurkariaren atezainak Eguzkik aurre hartzea eragotzi zuen. Gainera, kontraerasoak arriskua sortzeko baliatzen zituen Herrikidek.

Era horretara, Tolosako taldeak gola egitea lortu zuen eta 1-3kora arte, Eguzki atzetik joan zen.



Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldeak partida gogorrari egin zion aurre. TXINTXARRI

Orduan, presioa aurreratu zuen Lasarte-Oriako taldeak. Herrikideko jokalariek akatsak egiten hasi ziren eta horri esker, partida berdintzea lortu zuen Lopezek eta Escribanoren taldeak.

Gainera, aurkaria irekitzen joan zen eta sortutako guneak baliatuz garaipenaren gola egin zuen Eguzki Arkupe taldeak.

Lopez pozik dago jokalariek egindako lanarekin: "Partida

gogorra izan da, baina taldeak harrotasuna eta irabazteko grina erakutsi ditu".

Egun Lasarte-Oriako taldea sailkapeneko bigarren postuan dago. Ez da erraza izan bertan egotea; lehiaketa zaila dela nabarmendu du Eguzkiren prestatzaile Lopezek: "Maila handiko taldeak daude eta partida bakoitzean ahal dugun guztia eman behar dugu. Sailkapenean ikus daiteke puntu gutxitan talde ugari gaudela".

Lehiakortasun hori ikusirik, taldearen helburua igoera fasea ziurtatzen duen lehen lau postuetan sailkatzea da. Hala ere, Lopezek onartu bezala, "bigarren postua mantendu badezakegu, primerakoa izango litzateke".

Garaipena, jokalarien talde lanaren fruitu

Ostadarren Kadete Partaidetza taldeak Astigarragako Mundarro taldeari irabazi dio, 58-14. Jokaldiak ongi prestatuz, kide guztiek saskiratzeak egitea lortu dute partidaren zehar. Hurrengo jardunaldietan aurkari indartsuak izango ditu aurrez aurre

Txintxarri

Ostadar Saskibaloia ataleko Kadete Partaidetza taldeak sailkapena ixten duen Astigarragako Mundarro izan zuen aurrez aurre hilaren 29an, Maialen Chourraut kiroldegian. Aitor Lasek zuzentzen duen taldeak garaipena erdietsi zuen, 58-14.

Talde urdin-beltzeko jokalariek gogoz ekin zioten neurketari. Kontraerasoei eta joko arinari esker, 10-0ko partziala egin zuten. Azkenengo minutuetan, ordea, bi taldeen joko erritmoa lasaitu eta Astigarragakoak gai izan ziren sakira hurbildu eta puntuak saskiratzeko.

Bigarren laurdenean, Aitor Lasek zuzentzen duen taldea izan zen nagusi defentsan. Aurkariari sakira iristeko oztopoak jarri, eta Ostadarrek ez zuen punturik jaso hamar minutuetan. Erasoan, berriz, lehenengo laurdeneko erritmoa mantsotu zuen talde urdin-beltzak, eta jokaldiak ongi burutuz, jokalariek guztiek saskiratzeak lortu zituzten.

Atsedendialdiaren ostean, partida hasierako joko erritmoa



Ostadarren jokalaria, sakiratzea egin nahian. TXINTXARRI

berrezartzeko agindua eman zuen Lasek, eta kontraeraso eta baloi lapurreta azkarrei esker, abantaila handitu zuen Ostadarrek. Kanpokoen entrenatzaileak atsedena eskatu ostean, Astigarragako jokalariek erritmoa mantsotzea lortu, eta talde urdin-beltzaren saskiratze jariora geratu zuten. Gainera, hiruko bat saskiratu zuten.

Etxeko taldeak erasoari ekin zion azken zatia hasi bezain laster. Baloia mugitu eta tantoak egiten

zituen bitartean, Astigarragako taldearen erasoak gelditzeko gai izan zen Ostadar.

Azken minutuetan Astigarragako entrenatzaileak beste atsedena bat eskatu, eta emandako jarraibideei esker, etxeko taldearen hainbat eraso zapuztea lortu zuen: Ostadarrek apenas egin zuen saskiratzerik.

Arerioen jarrera

Aitor Las prestatzaileak neurketan bere jokalariek izandako eskuzabaltasuna nabarmendu du: "Baloia batetik bestera mugituz, jokalariek guztiek saskiraketak lortu dituzte".

Era berean, Astigarragako taldeak txapelketan izandako bilakaera eta jokalarien jarrera azpimarratu ditu: "Hasieratik hona, asko ikasi dute. Markagailua aurka izanagatik ere, kantxan ondo pasatzen dute".

Gogo horiek bere jokalariei kutsatzea espero du: "Baliagarria izan daiteke hurrengo partidei aurre egiteko; sailkapeneko buru diren taldeen aurka jokatu beharko baitugu".

Osasunaz gain, ipar martxa integrazio eta elkartasun bide

Ikusmen murriztua duten pertsonei zuzendutako ikastaroa eta Aspanogiren Ipar Martxa ibilbidea, hitzordu bereziak

Txintxarri

Ostadar Ipar Martxa taldeko kideek integrazioa eta elkartasunarekin lotuak dauden bi hitzordu antolatu dituzte.

Lehen, urtarrilaren 28an eta 29an izan zen. Ostadar SKTko Ipar Martxa eta Kirol Egokituko sailek Retinosis Gipuzkoa Begisare elkarteko kideei ipar martxa ikastaroa eskaini zieten. Bi saio izan ziren, bata Arrasaten eta bestea Donostian.

NW Blind gailuari esker, ikusmen murriztua duten pertsonei kirol disziplina hori irakasteko aukera izan zuten.

Ostadarreko arduradunek adierazi dutenez, jarduera arrakastatsua izan zen.

Horregatik, Retinosis Gipuzkoa Begisare elkarteko kideei Ipar Martxa taldearekin entrenatzeko edo txangoetara joateko gonbita egin dietela jakitera eman dute.

Elkartasuna adierazteko

Bestalde, otsailaren 15a Haur minbizidunen nazioarteko Eguna da. Bi egun lehenago, Aspanogik V. Ipar Martxa ibilbidea antolatu du, *Bizi iraupen bat posible da* lelopean. 11:00etan hasiko da ekimena Saguesen, eta Haizearen Orrazian amaituko da. Guztira, 6,1 kilometroko ibilbidea egin



Ikastaroko irudia. OSTADAR IPAR MARTXA

beharko dute parte hartzaileek. Ipar martxa eginez edo oinez, erraz egiteko moduko ibilbidea da, antolatzaileek jakitera eman dutenez.

Lasarte-Oriak ordezkari dezente izango ditu jarduera horretan: Ostadar SKTko kideez gain, Porrotzek ere tipi-tapa egingo baitu ibilbidea. Pailazoak zein herriko taldeko lagunek elkartasun martxa horretan parte hartzeko gonbita egin diete herritarrei.

Ipar martxako kideek jakitera eman dutenez, goizeko hamarretako trena hartuko dute Donostiara joateko.

Parte hartu nahi dutenek www.herrikrosa.eus orrialdean (bost euro) edo egunean bertan (hamar euro) izena eman dezaket.

Atsedendialdiaren ostean galdu dute partida Texaseko kadeteek

Lehen zati parekatu baten ostean, Lagun Onakek partida desorekatu du: bigarren gola egin, eta baloiaren jabe izan da

Txintxarri

Texas Lasartearra elkarteko taldeek ez zuten zorterik izan hilaren 29an Michelin kirol guneko hitzorduetan.

Igoera fasea lehiatzen ari da Kadete 1. mailako taldea. Laugarren jardunaldian, Azpeitiko Lagun Onak izan zuen aurkari eta 1-4 galdu zuen.

Neurketako lehen minutuetan lehia interesgarria izango zela zirudien. Nahiz eta Lagun Onakek

baloia hobeto mugitu, talde zuri-urdinak arriskua sortzeko gai zela erakutsi zuen. Bi taldeek aukerak izan zituzten markagailuan aurrea hartzeko.

Lehen zatien erdian, Texasek gola egin eta epaileak balio gabetu egin zuen, erasoan falta egiteagatik. Horrek kadete mailako jokariengan eragina izan zuen, eta momentu hori baliatu zuen Lagun Onakek markagailua irekitzeko.

Etxeko taldeak, ordea, ez zuen amore eman, eta atera gerturatzea lortu zuen behin baino gehiagotan.

Atsedendialdi 0-1eko markagailuarekin iritsi zen lehia, eta, garaipenaren bila, bi aldaketa egin zituen Texaseko entrenatzaile Iker Morenok.

Alabaina, bigarren zatian hasiera ematearekin bat partida hautsi zuen Azpeitiko taldeak; bigarren gola egin eta jokoaren kontrolaz jabetu zen. Talde zuri-urdinak ezin izan zuen aurkariaren erasoan aurka ezer egin, eta Lagun Onakek aukera ugari sortu zituen. Bitan, gainera, atean sartu zuen baloia.

Bien bitartean, Texasek ezin izan zuen azpeitiarren defentsa urratu. Gainera, jokalariek batzuek



Texas taldeko jokalaria, baloia babestu nahian. TXINTXARRI

min hartu, eta aldaketa batzuk egin behar izan zituen Morenok.

Laugarren gola egin ostean, aldiz, erritmoa moteldu zuen

Lagun Onakek. Texasek baloia mugitzeko erraztasun gehiago izan zuen eta eraso batean, gola egitea lortu zuen.

Beste emaitzak


Ordu batzuk geroago, Infantil 1. Mailako gaztetxoak atera ziren zelaira. Yonatan Monroyk zuzentzen duen taldeak Urrietaren aurka jokatu zuen eta 1-3 galdu zuen.

Eskola mailako gaztetxoek ere jardunaldia izan zuten. 1. urteko Alebin Mailan lehia ari diren Ostadar SKT eta Texas Lasartearra elkarten artean osatutako taldeak hilaren 30ean 2011. urteko Lazkao KE 2 taldearen aurka neurtu zituen indarrak.

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Unax ZORIONAK Unax zure bosgarren urtebetetzean, ondo-ondo ospatu eta jarraitu gu denok alaitzen. Muxu handi bat famili guztiaren partetik.



Kizkitza ZORIONAK mezzosoprano! Urte bat gehiago bete duzu eta zure alaitasunarekin pozten gaituzu! Kizz handi bat Zabaletatik Sasotara!

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberrak ere

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Zure erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
- Bidali zure zorion agurra formularioa betez.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak.

GUARDIAKO FARMAZIAK


OSTIRALA, 4	DE MIGUEL	EGUNeko FARMAZIAK: 09:00-22:00
LARUNBATA, 5	DE ORUE	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 6	DE ORUE	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 7	LASA	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 8	GIL	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
ASTEAZKENA, 9	ACHA-ORBEA	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 15 29
OSTEGUNA, 10	URBISTONDO	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00
M. Gomez Bravo: Kale Nagusia 14, Hernani. 943-55 48 92


URTE OSOKO GUARDIAK APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen
Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 4




Larunbata, 5




Igandea, 6




Astelehena, 7




Asteartea, 8



Asteazkena, 9



Osteguna, 10



TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943-37 16 29
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
KIROLDEGIA: 943-37 61 82
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA:
943-37 61 81
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
KIUB: 943-36 16 05
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
DYA: 943-46 46 22
GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
UDALTZAINAK: 943-36 24 42
ERTZAINAK: 943-53 88 40
SOS DEIAK: 112

SUDOKUA

5	4					7		1
		3	9	5	7			
					1		3	5
		1	7				5	4
2					5	6	1	
4		5	6	1				8
	9		2		4		8	
8		4	5	9	3			
3		2			6			

Jaio da!

Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n.
Deitu 943-37 14 48 telefonora,
bidali hauraren izen-abizenak eta jaiotze data
txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora
edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira

OHARRA

Algarve eta Cadizeko kostaldera bidai

Biyak Bat elkarteak Portugalgo Algarvera eta Cadizeko kostaldera bidai antolatuta du. Irteera maiatzaren 25etik ekainaren 5era izango da.

Bidaiaren prezioa 740 eurokoa da elkarteko kideentzat; bazkide ez diren pertsonak 820 euro ordainduko dituzte. Logela individuala nahi dutenek 230 euroko gehigarria izango dute.

Interesa duten pertsonak otsailaren 15etik aurrera bulegoko ordutegian (10:30-12:30) eman behar dute izena. Plaza erreserba egiteko 350 euro ordaindu behar dira.

Heriotzen berri eman

Inguruko norbaiten heriotzaren berri TXINTXARRI eman nahi baduzu, bidali zendutako pertsonaren izen-abizenak eta heriotza data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

API
inmolasarte

Etxea saldu edo alokatu nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan. Esperientzia handia dugu. **Esku onetan zaude!**

943-53 64 81 | 629 63 18 38
Inigo de Loiola, 2. behea.
LASARTE-ORIA
info@inmolasarte.com

SALDU

Marina D'Orr urbanizazioko (Castellon) etxebizitza bat saldu nahi dut, hondartzako lehen lerroan kokatua: 68 metro ditu, hamalau metroko terraza, bi gela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Lasarte-Oriako edo inguruko etxebizitza batengatik ere trukatu genuke. Harremanetarako zerbakia: 675 70 39 06

LANA

ESKAINITZA

Etxeko lanak egin eta bi pertsona adindu

zaintzeko pertsona behar da. Interesdunek mendekotasuna duten adineko pertsonen arreta soziosanitarioan lanbide-prestakuntza izan behar dute. Salbuespenezko edo aldi bateko gaikuntzak ere balio du. Kontratu, nomina eta Gizarte Segurantzaren alta ematea eskaintzen da. Harremanetarako zerbakia: 656 41 15 10

Klase partikularrik emateko pertsona behar da. DBH mailan. interesatua bazaude jarri harremanetan irakasle@yahoo.com bidez.

ESKARIA

Adineko pertsonak zainduko nituzke. Zaintza ikastaroa egin dut. Interno edo orduka lan egingo nuke. Harremanetarako zerbakia: 676 18 84 11.

Lan bila nabil. Interno moduan edo orduka lan egingo nuke. Harremanetarako zerbakia: 663 49 98 41.

Garbiketa lanak egingo nituzke, edota pertsona adinduak zaindu. Berehala lanean hasteko prest. Harremanetarako zerbakia: 643 23 92 51

Etxeko lanak egiteko edo haurrak zein adinekoak zaintzeko prest nago, goizetan, 10:00etatik 12:00etara.

Harremanetarako zerbakia: 671 27 79 05. Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... Esperientzia

handikoa eta profesionala garbiketan. Harremanetarako zerbakia: 673 55 62 89.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zerbakia: 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak

egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitalean gauak egiteko prest. Harremanetarako zerbakia: 634 27 81 98.

Ikasturtean zehar haurrak zainduko nituzke, eskolara sartu aurretik. Harremanetarako zerbakia: 630 68 27 16.

SALEROSKETA

SALDU

Etxe aldaketa dela eta, zenbait altzari saltzen ditugu: bi plazako

larruzko sofa, gorri ilun kolorekoa, egoera onean eta merke (300 euro); eta egongelarako altzari dotorea, estilo klasikokoa, oso egoera onean (400 euro). Interesa dutenei argazkiak bidaltzeko prest. Harremanetarako zerbakia: 616 83 11 52.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

Zientzia esparruko errefortzu saio partikularrik eskaintzen ditut, DBH eta Batxilergoko ikasleentzako, irakasgai askotan: Matematika, Fisika, Kimika, Marrazketa, Teknologia, Biologia eta Geologia. Ingeniaritza Mekanikoko gradua eta bigarren hezkuntzako masterra ditut. Harremanetarako zerbakia, 697 45 97 96.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646 82 44 66

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943-37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943-37 14 48**

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maitane Rebe, Julen Basterra,
Nerea Segura, Liemii Rekondo
eta Aizpea Amas.

Banatzzaileak:

Unai Bardaji, Oier Bocos, Lide
Hidalgo, Uxue Odriozola, Julene Iraola,
Egoitz Epelde, Sergio Hernandez,
Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzua
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.500 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA Santa Ageda. Herriko ikastetxeek eta zenbait eragilek Santa Ageda bezpera ospatuko dute, makilak gogoz astinduta eta oles ozen eginda. Pandemiak eragindako egoera tarteko, hezkuntza zentroetako emanaldiak ateak itxita egingo dituzte, eta ezingo da herritarrik bertaratu. Sasoeta LHko ikasleak 15:15ean hasiko dira, esate baterako. Garaikoetxea-Landaberrin eguraldiaren arabera antolatuko dira: ateri badago, 16:00etan ospatuko dute Santa Ageda bezpera, baina eguraldi txarra egiten badu, bi txandatan ariko dira, 15:15ean eta 16:00etan. Landaberri LHkoak ere 16:00etan hasiko dira. Bestalde, Zabaleta Auzolan eta Erketz EDT taldeek ere ospatuko dute egun berezia. Lehenak auzoan bertan ariko dira, 18:00etatik aurrera, eta bigarrenak Oriamendi plazatik abiatuko dira, 18:30ean. Otsailaren 4an, ostiralarekin, ikastetxeetan eta herrian barrena.

OSTIRALA 4

LASARTE-ORIA Santa Ageda

Ikastetxeek zein eragileek Santa Ageda bezpera ospatuko dute.

15:15ean: Sasoeta LHko ikasleak.

16:00etan: Landaberri LHko zein Garaikoetxea-Landaberriko ikasleak. Eguraldi txarra eginez gero, azken horiek bi txandatan ariko dira, 15:15 eta 16:00etan.

18:00etan: Zabaleta Auzolan auzo elkarteko kideak.

18:30ean: Erketz EDTko kideak. Ikastetxeetan eta herrian.

IGANDEA 6

LASARTE-ORIA Zinema

Ilargirantz filma proiektatuko dute. Sarrerek lau euro balio dute. Manuel Lekuona, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

El contador de cartas filma emango dute. Sarrerek sei euro balio dute. Manuel Lekuona, 19:30ean.

ASTELEHENA 7

LASARTE-ORIA Erakusketa

XIV. Itsaspeko Zinema Zikloaren jardueretako bat da argazki erakusketa. Otsailaren 25era arte

egongo da zabalik eta sarrera doakoa da.

Manuel Lekuona, 17:00-21:00.

LASARTE-ORIA Proiektzioa

Hiru emanaldi egingo dituzte XIV. Itsaspeko Zinema Zikloan. Lehenengoaz gozatuko dute herritarrek. Sarrera, doan.

Manuel Lekuona, 19:00etan.

ASTEAZKENA 9

LASARTE-ORIA Opera

Giuseppe Verdi konpositorearen *Otello* opera proiektatuko dute. Sarrerek 7,5 eta 9 euro artean balio dute.

Manuel Lekuona, 19:00etan.

OSTIRALA 11

LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldeak hilabeteko lehen proiektzioa egingo du: *Last Night in Soho* filma emango du. Sarrerek sei euro balio dute.

Manuel Lekuona, 20:30ean.

LARUNBATA 12

LASARTE-ORIA Antzerkia

Teatro Paraiso konpainiak *Leihoak* antzeztuko du. Sarrerek lau euro

balio dute eta sarean zein kultur etxeko leihatilan eros daitezke.

Manuel Lekuona, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Literatura

Lasarte-Oriako Irakurle Txokoak bertso saio literarioa antolatu du. Ane Labaka, Maialen Lujanbio eta Uxue Alberdi bertsolariak elkartuko ditu Miren Agur Meabe idazlearekin. Sarrerek hamar euro balio dute eta Ilargi, Jalgi zein Tiburtzio Artizar tabernetan eros daitezke. Antolatzaileek zehaztu dute ez dutela otordurik emango. Xirimiri elkarte, 18:00etan.

IGANDEA 13

LASARTE-ORIA Zinema

Tundama y el templo del sol filma proiektatuko dute, haurrentzat. Sarrerek lau euro balio dute eta sarean zein kultur etxeko leihatilan eros daitezke.

Manuel Lekuona, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

El caso Villa Caprice filma emango dute, helduentzat. Sarrerek sei euro balio dute eta sarean zein kultur etxeko leihatilan eros daitezke.

Manuel Lekuona, 17:00etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

'Ilargirantz'

Igandea 6
17:00.

'El contador de cartas'

Igandea 6
19:30.

ANDOAIN

BASTERO

'Ouireham'

Igandea 6
19:30.

Astelehena 7
19:30, 22:00.

USURBIL

URBIL

'Moonfall'

Ostirala 4
16:00, 19:00,
20:30, 22:00.

Larunbata 5

16:00, 19:00,
20:30, 22:00.

Igandea 6

16:00, 19:00,
20:30, 22:00.

'Spider-Man: No Way Home'

Ostirala 4
15:45, 18:20,
21:40.

Larunbata 5

12:00, 15:45,
18:20, 21:40.

Igandea 6

12:00, 15:45,
22:20.

Igandea 6

12:10, 15:45,
22:20.

'The Eyes of Tammy Faye'

Ostirala 4

16:10, 19:10,
22:10.

Larunbata 5

12:15, 16:10,
19:10, 22:10.

Igandea 6

12:15, 16:10,
19:10, 22:10.

'King Richard'

Ostirala 4
19:05, 21:25.

Larunbata 5

19:05, 21:25.

Igandea 6

19:05, 21:25.

'Belfast'

Ostirala 4

15:45, 22:20.

Larunbata 5

12:10, 15:45,
22:20.

Igandea 6

12:10, 15:45,
22:20.

'Nightmare Alley'

Ostirala 4

18:45, 22:05.

Larunbata 5

18:45, 22:05.

Igandea 6

18:45, 22:05.

'La abuela'

Ostirala 4
15:50, 18:05.

Larunbata 5

12:00, 15:50.

Igandea 6

12:00, 15:50,
18:05.

'Sing 2'

Ostirala 4

15:55, 18:40.

Larunbata 5

12:00, 15:55,
18:40.

Igandea 6

12:00, 15:55,
18:40.

'Mamá o papá'

Ostirala 4

16:05.

Larunbata 5

16:05.

Igandea 6

16:05.



LABURPENA

'El contador de cartas'

Zuzendaria: Paul Schrader. **Gidoia:** Paul Schrader. **Argazkia:** Alexander Dynan. **Musika:** Robert Levon Been, Giancarlo Vulcano. **ekoizleak:** Focus Features, HanWay Films, LB Entertainment, Convergent Media. **Herrialdea:** Amerikako Estatu Batuak (2021). **Iraupena:** 112 minutu. **Generoa:** Drama. **Aktoreak:** Oscar Isaac, Tye Sheridan, Tiffany Haddish, Willem Dafoe, Bobby C. King, Alexander Babara, Marcus Wayne.

Ezusteko jokaldi bat

William Tell (Oscar Isaac) militar ohia da: Irakeko gerrara joan zen Amerikako Estatu Batuetako armadarekin. Gaur egun, oso bestelakoa da bere ogibidea: poker jokalaria da. Cirk (Tye Sheridan) izeneko gazte bat ezagutu, eta bere eguneroko bizitza errotik aldatuko da, azken horrek honako proposamen hau egiten dionean: laguntza eskatuko dio,

gudarosteko koronel baten aurkako plan bat egin eta mendekua hartzeko.

Paul Schrader zuzendari beteteranoaren filmak Amerikako Estatu Batuetako gizarteari kritika zorrotza egiten dio, eta bereziki, kontsumismoari eta militarismoari. Joan den urtean gidoi onenaren saria irabazi zuen Valladolideko zinema jaialdian.

Egin TXOTX herrian!

OTEGI

TOLARE SAGARDOTEGI

Ostiralean irekiko dugu!
(lotsailaren 4an)

txahal-saiheskia ere badugu!

Igande gauak eta astelehenak itxita
Asteazken zehar bazkari eta afariak erreserbarekin (6 lagun gutxienez).

ERRESERBAK: 943-36 50 29 / 654 80 61 63 • Solla-Enea Baserria, Zabaleta auzoa 20160 LASARTE-ORIA

txintxarri

Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz

“PUBLIZITATEA DA
INBERTSIORIK
ONENA”

HORREGATIK...
DESKONTU BEREZIAK DITUGU
HERRIKO KOMERTZIO, ENPRESA ETA OSTALARIENTZAT

ESKATU TARIFAK: publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66 